

Amaieraren hasiera

Koldo SAGASTI

Ekainaren 19an EHUko Ibaetako Campuseko Gobernu Batzordeak CAF konpainiarekin sinatu behar zuen hitzarmena bertan behera utzi zuen. Unibertsitateak dagoeneko gisa horretako lankidetzak akordioak dauzka Beasaingo enpresarekin, zehatzago Bilboko Ingeniaritza Eskolan; besteak beste, gradu eta master amaierako lanak, doktore tesiak, hezkuntza ikastaroak, mintegiak eta praktikaldiak bideratzeko. Oraingoan, aldiz, Ibaetako errektoreorde Agustin Erkizia Olaizolak jakinarazi duenez, ez da hitzarmen berririk sinatuko, eta arrazoiak erakundeak apirilean onartutako mozioarekin koherentea da. Adierazpen horretan unibertsitateak Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa errespetatzen ez duten erakundeekin ez kolaboratzeko borondatea agertu zuen, eta konpromiso horrek zuzenean eragiten dio Palestinako lurralde okupatuetan legez kanpoko azpiegitura bat eraikitzen ari den Gipuzkoako trengintza konpainiari.

Erabakiak kalte handia ekarriko dio, dudarik gabe, CAFen irudi korporatiboari, baina ez da enpresak azken hila-beteotan pairatu duen astindu bakarra. Apirilean, Storebrand taldeak, aurrezki eta aseguru enpresaren liderra den Norvegiako enpresak, jakinarazi zuen CAF bere inbertsioetatik baztertu egingo zuela Palestinako lurralde okupatuetan darabilen jardueragatik. Gauzak konplikatzen ari zaizkio azken urteotan Israelgo erregimen kolonialarekiko

merkataritza harremanak estutzearen aldeko apustu estrategikoa egin duen konpainiari.

«Sionismoaren kolapsoa» izenburu duen artikulu batean, Ilan Pappék, Londresen erbesteratutako historialari israeldarrak, iragarri berri du prozesu historiko baten hasieran gaudela, eta prozesu horrek, ziurrenik, sionismoaren amaiera ekarriko duela. Baina sionismoa ez da desagertuko bere gain-beherako bidean ahalik eta minik handiena egin gabe. Errugabe palestinar asko eta askoren bizitzak galduko dira bide horretan. Gizatasuna ere galtzaile aterako da. Baina ez dezatela pentsa erregimen sionistaren konplize izan direnak onik aterako direnik. Ondorioak sumatzen hasiak dira. •

Okerreko habeak jartzen

Asier AIESTARAN

Etxegintzan master bat egiten ari naiz azken urteotan. Gure auzo zaharreko pabiloi abandonatuak eraitsi eta etxebizitza berriak egiten ari dira jo eta su. Zarata eta zikinkeria jasanezinak dira, baina askotan tontotuta geratzen naiz leihotik begira: eraikuntza zaharrak birrintzen, hondeamakinak lurra mugitzen, habeak lurrean sartzen, garabi erraldoiak muntatzen, solairuak zerura igotzen...

Makinetara joaten zait begia gehienera, baina horiek lan egingo badute langileak beharko dira, eta langileen jardunari begira ere harrapatzen dut askotan nire burua. Badira goizeko zazpietarako bertan bueltaka dabiltzanak, gaueko be-

deratziak jota lanean ikusi izan ditugu beste batzuk. Uda garaian, bero handiena egiten duen egunetan, gure etxe azpiko itzalgunean etzanda topatu izan ditut askotan, “bazkaltzen” edo. Portugaldar kuadrilla egun batean, pakistandar itxurakoak bestean...

Eraikuntza lanak behin amaituta, sari banaketa hasten da, edo zigor eskaera. Ahal duenak, edo ahal duela uste duenak, etxebizitza “librea” erosiko du. Eta babestutako etxebizitzaren zozketa ere egingo da. Ez dut datu zehatzik, baina nire inguruan “saria” tokatu zaien gehienek 40 urtetik gora dituzte, lan finko samarra, seme-alaba bat edo beste... Etxe berria bultzada polita izango

da beraientzat, baina ez dut uste bizitza gehiegi aldatuko zaienik. Eta, are kezkarriagoa dena, ez dut uste prozesu horrek guztiak etxebizitzaren arazoa ezertan aldatuko/hobetuko duenik.

Eta gogoetan nabilela, ezagun baten kasua kontatu didate. Erdialdeko amerikar emakumea, ahal bezala zaintza lanean dabilena paperak lortu bitartean, konpartitutako pisu batean sofan lo egiteagatik hilabetean 250 euro ordaintzen zituena, eta pozez zorutzen hartu duena zaintzaile egoiliarra izateko eskaintza bat, bertan lo egiteko aukera duelako.

Etxepeko portugaldarrekin oroitu naiz, pakistandarrekin, lan bila dabilen 20 urteko gaztearekin... •